

2017-01-26ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, Udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira, gai-zerrenda aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin udal idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa. Jarraian, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

EREIN 2017 PROGRAMARAKO IRURAKO UDALAK ESKATUKO DUEN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Argitaratu da 2017ko ekitaldirako Agindua, 2016ko abenduaren 14koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duena.

Irurako Udalak proiektu bat sartu nahi du programa horretan: San Migel Plaza 6ko eraikina berritzeko lanak, haur-eskola zerbitzua emateko.

Proiektuaren aurrekontua 279.606,46 eurokoa izango da.

Hori dela eta, udalbatzak, aldeko 5 botorekin (PNV) eta 2 abstentziorekin (EH Bildu), hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Proiektu hori aurrera eramatea onartzea.

Bigarrena.- Kontuan hartuta 2017ko ekitaldiko Udal Aurrekontua ez dela oraindik onartu, konpromisoa hartzea Aurrekontuan dagokion kreditua jasotzeko, aipatu den obra finantzatu ahal izateko.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du bere taldeak (EH Bildu) ez duela izan proiektua ezagutzeko aukerarik. Gaur goizean bertan, Batzorde Informatiboan, azaldu dela proiektua eta, orain, udalbatza berezia dagoela. Horregatik abstenitu direla.

Alkateak erantzun du proiektua lehendik ezaguna dela, eta dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen ari delako egin dela deialdi berezia.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du ezaguna dela proiektua, baina orain aurkeztu dela, gaur goizean, eta ezin izan duela bilerara etorri, lan arazoengatik. Gauza batzuk oso azkar egiten ari direla.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du, gainera, ez dela bakarrik lokal horren erabilpena, San Migel Plaza osoaren berrantolaketarena baizik, eta susmatzen ari direla PNVk bere plana daukala, baina ez diela besteei ezer esan nahi. Herritarrekin bildu behar dela, plazaren egitura azaltzeko eta eztabaidatzeko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Nik, idazkari naizen aldetik, bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA